

Duela urtebete, urtarrilaren 20an ireki zituen ateak Biziola Fabrikak. Egun hori ordea, bi urteko lanaren emaitza izan zen. Ordutik, eskualdean elikadura burujabetzaren bidean pausoak emateko erreferentziazko espazio bihurtu da Biziola. Goierriko 25 ekoizle saretu eta urte batean bi ekoizle berri martxan jartzen lagundu dugu. Elkarrekin, eraldaketarako norabide partekatu bat definitu dugu eta elikadura kateko kate-begi ezberdinak artikulatzen hasiak gara, elikadura eredu burujabeago, iraunkorrago eta orekatuago baterantz ibilbidea elkarrekin egiteko.

Baina Biziola ez zen soilik elikaduraren eremuan eragiteko jaio, elkarrekin etorkizun bizi-garriak elikatzekeo baizik. Jakitun gara eskualde gisa hamaika erronka ditugula ate joka, energian, zaintzan, mugikortasunean, aniztasunean, aisialdian... Eta erronka horiei erantzuteko komunitate gisa sendotzen gaituzten proiektu berriak bultzatzea ezinbestekoa da. Horregatik, Biziola Fabrikan pauso bat aurrera eman eta bigarren solairuan eskualdeko proiektu eraldatzaile ezberdinentzako lanerako espazioak kokatu nahi ditugu. Interkooperazioa ardatz, proiektu ezberdinen artean lankidetzak indartu eta eskualdean indar handiagoarekin eragiteko, elkarrekin. Martxan dauden proiektuen kokaleku izateaz gain, proiektu berrien sorlekua ere izango da. Goierri burujabeago, orekatuago eta iraunkorrago baten alde lan egingo duten proiektuak bildu eta hazi araziko dituen elkarlan gunea.

Goiko espazioa aktibatzeak eraikinari emango lioken dinamismoa eta eskualdean izango luken eragina mugari garrantzitsuak lirateke. Erronka hau errealitate bihurtzeko ordea, ezinbestean erabaki beharreko galdera baten aurrean aurkitzen gara. Dagoeneko badira bi urte gaur Biziola kokatuta dagoen fabrika alokatu genuela. Orduko hartan, erosketa aukera jasotzen zuen hiru urterako alokairu kontratu bat adostu zen fabrikaren jabearekin. Beti ere, alokairuan ordaindutakoa, balizko erosketa bateko eraikinaren prezioetik deskontatuko zelarik. Goiko solairuan espazio berriak martxan jartzeko apustua egingo bada, eraikina erosteko apustuaren eskutik joan beharko da ordea; ezinbestean, batean egin beharreko inbertsioak, iraunkortasunerako segurtasuna eskatzen baitu eraikinaren erabileran.

Fabrikaren erosketa apustu handia da, baina Biziolak bere proiektua osotasunen garatu ahal izateko ezinbestekoa. Bereziki goiko solairua egokitu eta bertan Ekonomia Sozial Eraldatzaileko egungo proiektuak eta etorkizunekoak kokatzen hasteko. Horrek arlo ezberdinetako eraldaketa proiektuak elkarrekin aritzeko aukera ematen du, baita Fabrikaren erosketa eta mantenua finantzatzeko diru iturria ere.

Horrelako pauso handi bat negoziatzen hasi ahal izateko bazkideek zer proposatzen dugun eta bazkideen babes nahikoa oso garrantzitsua dira.

Horregatik, fabrika erostearen inguruko azken erabakia, ekainean egingo den batzar orokorrean hartuko bada ere, urtarrilaren 20ko batzar honetan honako galdera luzatuko zaizue bazkideei: *Batzar Orokorrak eskubidea ematen al dio Kontseilu Errektoreari Biziola Fabrika erosteko aukera ezberdinak lantzeko?*

bizi
ola

Bestalde, jada langile bazkideak ditugunez, kontseilu errektorean langileen errepresentazioa barneratzeko aldaketak onartuko ditugu batzarrean.

- **Oraingo osaera:**

| | |
|---|-------------------------------|
| Bazkide erabiltzaileen errepresentazioa | Intza Barandiaran |
| | Agurtzane Allur |
| | Xabi Irastortza |
| | Josune Galartza |
| | Ander Kerexeta |
| Bazkide juridikoen errepresentazioa | Andoni Mikelarena (Talaio) |
| | Markel Urretabizkaia (Basabe) |
| | Narrea Elortza (Goienar) |
| | Nerea Elias (Farapi) |
| Bazkide laguntzaileen errepresentazioa | Asier Lekuona (Goian) |

- **Proposamena:**

| | |
|---|-------------------------------|
| Bazkide erabiltzaileen errepresentazioa | Agurtzane Allur |
| | Josune Galarza |
| | Xabi Irastorza |
| | Andoni Mikelarena |
| Bazkide langileen errepresentazioa | Intza Barandiaran |
| | Haizea Bravo |
| Bazkide juridikoen errepresentazioa | Markel Urretabizkaia (Basabe) |
| | Narrea Elortza (Goienar) |
| | Nerea Elias (Farapi) |
| Bazkide laguntzaileen errepresentazioa | Asier Lekuona (Goian) |